visesa
ETXEBIZITZA SUSTATZAILE PUBLIKOA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y AGENDA URBANA

OINARRI TEKNIKOEN AGIRIA

1. XEDEA

Kontratazio-espediente honen xedea da Visesako lan-kontratudun langileen euskarazko hizkuntza-gaitasuna bermatzea 2025 – 2026 ikasturterako; horretarako, 3 modalitate aurreikusi dira:

A) Euskara-eskolak → Euskara irakastea ezarritako maila eskuratzeko

B) Lanerako Trebakuntza Teknikoa → Laneko dokumentuak euskaraz lantzeko eta sortzeko gaitasuna garatzera bideratutako ikastaroak

C) Euskara ikastaro trinkoak → Azterketa ofizialak prestatzea, euskara-eskolak amaitu ostean.

Adjudikaziodunak, ikastaroak emateaz gain, jarraian zerrendatzen diren ikastaroaren alderdiekin lotutako izapideak egin beharko ditu:

2. ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK

A) Enpresa adjudikaziodunak eskolak aurrez aurre emango direla bermatu beharko du.

B) Ikasketa-sistemak bermatu behar du ikasleak azterketa ofizialetara aurkeztu ahalko direla.

C) Materiala eta baliatutako metodologia HABEren programa ofizialekin bat etorri beharko da, eta enpresak ikasturte hasieran aurkeztu beharko du.

D) Kontratatutako enpresak ikasleei material didaktikoa emango die (fotokopiak, liburuak, audioak, bideoak...).

E) Irakasleek honako esperientzia hau izan beharko dute euskara irakasten:

C2 taldea (Lanerako Trebakuntza Teknikoa); 3 urteko esperientzia prestakuntza-mota horretan
C1 taldea; 6 urteko esperientzia maila horretan edo goragoko maila batean

Irakasle-taldea **gutxienez** 4 irakaslek osatuko dute:
- Gasteizko irakasleak: 2, unibertsitate-tituluarekin (gradua/goi-mailakoa)
- Bilboko irakaslea: 1, unibertsitate-tituluarekin (gradua/goi-mailakoa)

- Donostiako irakaslea: 1, unibertsitate-tituluarekin (gradua/goi-mailakoa)

F) Koordinatzaile bat izendatu beharko da, eta hura izango da Visesako euskara-arduradunarekiko solaskidea; halaber, irakasleak, egutegiak eta ordutegiak koordinatzeaz arduratuko da eta sor daitezkeen premiak konpondu beharko ditu. Pertsona bat aldi berean izan daiteke koordinatzaile eta irakasle.

G) Hiru azterketa edo aurrerapen-proba egingo dira; bat hasieran (diagnosia), beste bat ikasturtearen erdian, eta hirugarrena ikasturtearen amaieran. Halaber, Visesako euskara-arduradunari bidaliko dizkio emaitzak.

H) Talde bakoitzaren aurretiazko analisia egin beharko da, mailak eta gaitasuna egiaztatzeko eta ikastaroa planifikatzeko, ahalik eta errendimendu gehien lortu ahal izateko. Analisia Visesari aurkeztuko zaio eskolak hasi eta 15 eguneko epean.

I) Ikastaroa amaitzean egiaztatutako maila ofizialaren egiaztagiri pertsonala emango zaie ikasleei.

J) Enpresa adjudikazioduna prest egongo da ordutegiak, irakasleak eta ikasleak aldatzeko eta egokitzeko, Visesaren beharren eta irizpidearen arabera. Halaber, egiaztatu beharko du nahikoa irakasle dituela maila desberdinetan prestakuntza emateko.

K) Prestakuntza-prozesuaren edozein unetan Visesak irakasleak aldatzeko eska dezake, betiere enpresa kontratatzaileak eskatutako kalitate-irizpideak betetzen ez badituzte. Parametro horien artean gaitasun didaktikoa eta motibatzaileaz gain, irakaslearen dinamismoa kontuan hartuko da.

L) Enpresa adjudikaziodunak bere irakasle-taldearen zerbitzua kontrolatu eta berrikusiko du, funtzioak betetzeari zein puntualtasunari dagokionez. Irakasleren bat ezin bada eskolak ematera bertaratu, enpresa adjudikaziodunak kualifikatutako beste irakasle bat bidaliko du berezko irakaslearen ordez.

M) Irakasle-taldea arduratuko da ikasleak HABEko fitxa betetzen dutela egiaztatzeaz.

N) Enpresa adjudikazioduneko irakasleek egiaztatuko dute ikasleen bertaratzea. Horretarako, ikasleek egunero sinatu beharko dute Visesako euskara-arduradunak ikasturtearen hasieran emango dien sinadura-orria.
Bertaratze-orria egunero sarreran utzi beharko dute, pertsonen sailari zuzenduta.

Halaber, hiru hilean behin, enpresa adjudikaziodunak posta elektroniko bidez euskara sustatzeko arduradunari ikasle guztien bertaratzea bidaliko dio.

O) Enpresa adjudikaziodunak, urtean bitan, gogobetetze-inkesta helaraziko die ikasleei eta zuzentze-plan bat sortuko du.

P) Beste konfinamendu bat gertatuko balitz, enpresa adjudikaziodunak bermatu beharko du aurrez aurreko eskolak birtualak bihurtuko direla; hau da, aurrez aurreko modalitatean emandako prestakuntza-jarduera guztiek prestakuntza-metodologia alternatiboak erabili ahal izango dituzte, eta besteak beste baliabide didaktiko digitalak zein bestelakoak erabili ahal izango dituzte, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eta horren ebaluazio telematikoa ahalbidetzeko.

Metodologia alternatibo berri horrek honako hau bermatu beharko du:

i. Parte-hartzaileek jasotako baliabide didaktikoak nahikoak izatea.

ii. Gutxienez erabiltzailearen arretarako telefono-zenbaki bat eta helbide elektroniko bat ematea, arazoren bat edo zalantza funtzionalak izatekotan deitu ahal izateko.

iii. Aurrez aurreko prestakuntzaren kautelazko etenaldia amaitzean, baliabide didaktiko digitalen bidez egin ezin izan den prestakuntza teorikoarekin lotutako prestakuntza praktikoa ematea.

iv. Ikaskuntza-zailtasunak izan dituzten ikasleei errefortzu-orduak ematea, prestakuntzaren etenaldia amaitu ostean.

v. Konektatutako parte-hartzaile guztien zerrenda jasotzen duen pantailaren kopia, edo prestakuntza-jarduerako parte-hartzaileen bertaratzea egiaztatzen duen beste dokumentu bat.

vi. Ezagutza transmititu dela, aurreikusitako helburuak eta edukiak eman direla eta horien ebaluazioa bermatzen duen txostena. Bertan, honako hauek zehaztu beharko dira:

1. Eragindako prestakuntza-jarduerak eta -moduluak, hala badagokio.
2. Prestakuntza-jarduera modalitate alternatiboan berriz hasi den data.
3. Erabili beharreko baliabideak eta tresnak. Ildo horretatik, bermatuko da eraginkorrak eta askotarikoak direla, bai eta ezarri diren prestakuntza-jardueraren xede diren ikasleen

konpetentzia eta gaitasunetara egokitzen direla ere.
4. Lan-metodologia.
5. Jarduera teoriko-praktikoen zerrenda.
6. Ebaluazio-sistema, hala badagokio.

3. IKASTAROAK EMATEARI LOTUTAKO XEHETASUNAK

IKASTURTEAK

1.- Egutegia aurrerago zehaztuko da Visesako euskara sustatzeko arduradunarekin, eta kontratatzailearen beharren arabera zehaztuko da; hala ere, honako hau izango da printzipioz:

a) Ikasturtea 2025eko urriko lehenengo hamabostaldian hasiko da eta ikastarorako aurreikusitako orduak betetzean amaituko da (maiatza/ekaina).
b) Gabonetan ez da eskolarik egongo 2025eko abenduaren 22tik 2026ko urtarrilaren 6ra arte; Aste Santuan, berriz, 2026ko martxoaren 30etik apirilaren 12ra arte.
c) Baliteke Visesako pertsona guztientzako lana egotea, eta, hortaz, hasiera batean adostutako eskola-orduak murriztea.
d) C1 mailan bulegoan 126 ordu emango dira (4 ordu astean).
   Lanerako Trebakuntza Teknikoaren kasuan, berriz, 28 ordu (ordubete astean)
   Ikastaro trinkoak 8 eta 16 ordu bitartekoak dira (2 ordu egunero astelehenetik ostegunera)
   Zuzenketak eta jarraipena egiteko tutoretza-ordu bakar bat egingo da astean. Ordu horiek egiaztatu behar dira, eta, ondoren, Visesako koordinatzaileak onartu behar ditu.

2.- Pertsona-kopurua eta mailak:

MAILA	PERTSONA KOP.
C1	5
Lanerako Trebakuntza teknikoa Vitoria-Gasteiz (4 talde)	17
Lanerako Trebakuntza teknikoa Bilbo	4
Lanerako Trebakuntza Teknikoa Donostia	2

Taulako datuak nahiko zehatzak diren arren, aldaketak egon daitezke ordu-kopuruan, parte-hartzaile kopuruan eta ordutegietan, edo talderen bat desagertu daiteke eta horren ordez berriak sortu.

Visesak eskubidea du azterketak prestatzeko ikastaroak beste hornitzaile batzuekin kontratatzeko, hala badagokio.

3.- Ordutegiak

Eskolak 08:00etatik 10:30era arte emango dira, salbuespenak salbuespen.

Ikasturtea	Egunak	Ordutegia
C1	Astearte eta ostegunetan	08:00 - 10:00
Lanerako Trebakuntza teknikoa Vitoria-Gasteiz(4 talde)	Astelehen eta asteazkenetan	08:30 - 11:30 bitartean
Lanerako Trebakuntza teknikoa Bilbo	Asteazkena	08:30 - 09:30
Lanerako Trebakuntza Teknikoa Donostia	Asteartea	08:30 - 09:30
TRINKOA	--	--

Taulan jasotako egunak eta orduak aurreikuspenak besterik ez dira, eta behin betiko taldeak sortzean zehaztuko dira.

4. KONTRATUAREN EPEA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Kontratua 2025eko irailetik 2026ko uztailera izango da (biak barne).
Ikasturte osoko ikastaroak ordaintzeko, fakturak entregatu beharko dira bi epe hauetan:

- 2025eko azaroa (% 30)
- 2025eko abendua (% 70)

Ikastaro trinkoak ikastaroaren amaierako faktura entregatzean ordainduko dira.
Zuzenketak eta jarraipena egitera bideratutako orduak hilabetero fakturatuko dira.

5. AURREKONTUA

Euskara-eskoletarako, C1 mailarako, azterketak prestatzeko ikastaro trinkoetarako eta Lanerako Trebakuntza Teknikorako gehieneko prezioa 91,89 €/ordu da, eta zuzenketak eta jarraipena egiteko prezioa, berriz, 70,27 €/ordu.